


Herri kirol desafioa korrika, harri jasotzen eta aizkoran, San Inazio egunean Santa Barbaran

■ Bi talde ariko dira elkarren kontra ■ Meza, omenaldia Indio eta Atarrabiyori, bertsolariak, bazkaria eta toka eta umeentzako jokoak ere izango dira San Inazio egunean, uztailak 31, Santa Barbaran ■ Morkaiko kultur taldeak antolatzen du.

ASPALDIKO festa da San Inazio egunez Santa Barbaran egiten dena. Aurten ere saltsa jarriko duen herri kirol desafioa dago, hernaniar edo herriari bizi eta ibiltzen direnen artean. Launa laguneko bi talde aterako dira: batek korrika egin beharko du, sarrera nagusian behera tiroko kanpo aldera eta handik atzeko sarrerara; bi bueltako lau ekinaldi. Beste taldekide batek "harri jasotzen" ari beharko du 80 kiloko egurrekin eta beste bi taldekideek aizkoran ari beharko dute, hauek ere lau txandatan, aldiro bi kanaerdiko bota arte. Lanak lehenengo bukatzen dituen taldeak irabaziko du aurtengo desafioa.

Lau urteko kontua

Santa Barbarako festan herri kirolek beti izan dute tokia. Orain 4 urte arte, ordea, profesionalak ekartzen zituzten kanpotik eta Morkaiko taldeak herriko jendea proban jartzen saiatzea erabaki zuen orduan. Lehenengo bi urteetan aizkora apustua egin izan da herritarren artean eta iaz eta aurten herri kirolak txandan. Azken urteotan giro izugarria izan da Santa Barbaran eta herriko



Iaz bero izugarrian aritu ziren lanean San Inazio egunez. Argazkian, Larrabide aizkoran.

parte hartzaileek maila oso ona erakutsi dute. Aurten ere ez dira elkarri barkatzeko egongo eta festa segurua da.

Goizetik arratsaldera

Festa goizean hasiko da Her-

nanin txistularien dianarekin, Indio eta Atarrabiyori omenaldia, meza, bertsolariak, herri bazkaria eta toka eta umeentzako jokoak izango dira goiz eta arratsaldean, Santa Barbaran bertan.

Bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude Kitto eta Aralarren, 15 eurotan. Morkaiko taldeak Kronikari menuaren berri ere eman dio: marmitakoa, txuleta eta Adarragako *brazo jitanoa*. □

HERRI KIROL DESAFIOA

1 TALDEA

- **KORRIKA:** Joxe Angel Oartzabal, Epelekoa.

- **HARRI JASOTZEN:** Joseba Izeta Martutenekoa.

- **AIZKORAN:** Baleri Aranburu eta Joxe Angel Tapia, Hernanin bizi diren oiartzuarrak biak.

2 TALDEA

- **KORRIKA:** Roxario Pikabea Epelekoa

- **HARRI JASOTZEN:** Aitor Barrenetxea Martindegikoa.

- **AIZKORAN:** Juan Migel Larrabide Oriamendikoa eta Jon Larrañaga Larra Martindegin bizi den oiartzuarra.

Gaur arratsaldean hasiko dira Santioak Aranon

■ Iñigo Larrea Alkateak botako du txupinazoa Udaletxeko balkoitik 20:00etan eta poteoa, meza eta mus azkarra daude gero.

GAUR, Santio bezpera, arratsaldeko 20:00etan emango diote Aranoko festei hasiera. Gaurko egunean meza eta mus azkar txapelketa daude, eta bihurtik aurrera sartuko dira festak bete betean.

Santio Eguna

Bihar, Santio Eguna, festak bete betean sartuko dira. Goizueta eta Aranoren arteko pelota partiduek giroa berobero jarriko dute bazkal aurretik eta arratsaldean herri

kiroletan punta puntako ikuskizuna dago. Saralegi harria jasotzen ariko da, Mindegia eta Arrospidek aizkoran eta Eneko eta Ruben 10 eta 12 urteko gazteek ere aizkoran, gazteak izan arren dotore egiten baitute.

Bukatzeo iparraldeko jokoak izango dira. Herri kirolak bukatzean bertso saioa hasiko da. Xabier Legarreta herriko bertsolariak gaiak jarrita ariko dira Angel Mari Peñagarikano albizturdarra, Xabier Silveira

lesakarra eta Estitxu Eizagirre eta Maialen Lujanbio hernaniarrak. Egunari errematea Epelde eta Larrañaga trikitilariek emango diote, baina festari ez horregatik, igandera arteko egitarau zabala baitago. □

GAURRETA JAI-ALAI!

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA

ERREMONTE JAIALDIA:


1. partidua: Juaristi - Olazar / Uterga - Lander
2. partidua: Ezkurra - Etxeberria III / Altuna I I - Lizaso
3. partidua: Elizalde - Etxabe / Bitoria - Aizpuru
4. partidua: Sarasua - Etxeberria II / Iribarren - Aizpurua II

GAUR
ASTIGARRAGAN
GAITZERDIren
NAIZ
ikuskizuna
(Sua, ura, lurra,...)

Foru Plazan
22:30etan

Astigarragako Udala

Santio jai zoriotsuak opa dizkizuegu!
Etorri festara eta ondo pasa.



Malabar tailerra dakienak hobetzeko eta ez dakienak ikasteko da.

Malabar tailerra asteartetan Tilosetan

ASTEARTETAN 17:00etatik aurrera hainbat lagun biltzen dira Tilosetan malabarekin aritzeko. Duela hiru aste hasi ziren tailerrarekin eta hurrengo asteetan jarraitzeko asmoa dute, baldin eta jenderik agertzen bada. Malabareekin praktikatzeko aritzen den lagun

talde bat da antolatzen aritzen dena. Diotenez, tailer hau ez dakienak ikasi eta dakienak hobetzeko da.

Tilosetara agertzen den edonork erabili ditzake eramatzen dituzten pelotak, mazak, muturrean pelotak lotuta dituzten sokak, maki-

lak, eta abar. Atzo arratsaldean ere Tilosetan lagun talde bat bildu zen, haur eta gazteak gehienak. Batzuek ederki asko manejatzen zituzten pelotak eta gainerantzekoak; besteek aldiz astearte gehiagotan aritu beharko dute. □



Astigarragan umeez hasi zituzten festak. Astigarrako Santioak atzo hasi ziren umeez txupinazoa botata. Ondorenean bazkaria eta arratsaldeko festa izan zituzten. Gaur, abenturako kirolak daude arratsaldean eta *Naiz* ikuskizuna emango du Gaitzerdi antzerki taldeak, 22:30etan. Gauerdian, berriz, Santio ermitako kanpaiak joko dituzte rock kontzertua egongo da J. Barandiaran plazan, doinu gogorak gustatzen zaizkienentzat.



KAOTIKO

GAUR
ASTIGARRAGAN
ROCK kontzertua
KAOTIKO
eta

SURFING CAOS
J. Barandiaran plazan
24:00etan

Santio jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!
Etorri festara eta ondo pasa.



Astigarragako Udala

Toka eta dominoa gaur

ZAHARREN Egoitzan Madalenak ari dira ospatzen astelehena ezker. Gaur Toka txapelketa daukate 10:30etan eta arratsaldean, berriz, Domino

txapelketa, 17:30etan. Gaurko egunarekin bukatuko dira aurrengo Madalena jaiak eta hurrengo festak Donostiako Aste Nagusietan izango dituzte. □



Lizaso pelota astintzen.

Lizaso eta Ezkurra aurrez aurre gaur Galarretan

PELOTA jaialdi ederra dago gaur Galarretan, arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Partidu estelarra bigarrena izango da eta Ezkurra eta Etxeberria III Altuna II eta Lizasoren kontra

ariko dira. Doneztebeko bi pelotariak elkarren kontra jokatzeak beti pizten du ikusmina, eta ez da harrizkoa bi erremontista onentsuenak baitira. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
- ▶ Gaez: Iturralde Usurbil. Poligono 13, 9 ☎ 943 363395

IRAGARKI MERKEAK

Bi neska behar ditugu Hernaniko taberna batean sukalde eta zerbitzari lanak egiteko. 25 urtetik gorakoak eta esperientziarekin. Deitu: **943 55 26 94** (Nekane 10:00-15:00 eta 17:30-23:00)

Hernaniko Pelukeria batean estetika lanak egiteko pertsona bat behar degu. Deitu: **943 55 63 68**

Txakur kumea galdu da Osiñaga inguruan. Arratoi txakurra da, marroizta eta arra. Bilatzen duenak deitu **943 580820** telefonora.


† MERCEDES GARCIA RUBIO

ANDEREA (Francisco Cermenanaren alarguna)

Atzo hil zen Hernanin, 90 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Seme alabak: Mari Carmen eta Antonio Fernandez, Agustin eta Victoria Ayerbe; bilobak: Maribi, Eider, Borja eta Javier; Ahizpa: Raquel (Luis Marquenzen alarguna), hilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezte GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN HERNANIKO SAN JUAN BATAIATZAILEA parrokan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



Helbidea: Nafar kalea 16 - 3º

Hernanin, 2003ko uztailaren 24an

Azken bizilekua: Santa Maria Magdalena Residentzia

Oharra: Gorputza beila Sandiusterriko Zaharren Egoitzako Tanatorioandago. Konduzioa familiartean egingo da

ZINGI-ZANGA



Jatetxea

Eguneko menuak

Asteburuan afariak

Florida 54

☎ 943 33 03 97

ZINGI - ZANGA

Eguneroko menuak.

Asteburuetan afariak.

SANTIO JAIK ARANON GAUR HASI ETA IGANDERA ARTE



Mieltxo Saralegi orain bi urteko Santio jaietan. Azken urteetan, Saralegik bereganatu du jendearen arreta Santio egunez izaten diren Herri Kiroletan.

Txupinazoa, Meza eta Musa gaur jaiei hasiera emateko

■ Bihar Herri Kiroiak eta bertsolariak izango dira, eta etzi, jubilatuen bazkaria eta gauean urteroko oilasko jatea eta gaupasa
 ■ Artzai-txakurren erakustaldia igande arratsaldean izango da, eta ikusmin handia piztu du, joan den urtean izandako arrakasta eta gero ■ 'Herriko Etxea' ostatua jaietarako zabalduko dute.

GAUR hasiko dira Santio jaiak Aranon, eta urtero bezala ekitaldi asko daude prestatuta igandera bitartean. Arratsaldeko 20:00etan, Iñigo Larrea Aranoko Alkateak botako du festa hasierako txupinazoa edo suziria eta Herri Meza eta Mus Azkarra izango dira ondorenean.

Herri Kiroiak Santio egunean

Bihar da Santio eguna eta Herri Kiroiak izango dira urtero bezala. Aurten ere Saralegi harrijasotzailea da etortzekoa eta berarekin izango dira Arrospide eta Mindegia aizkolariak, Iparraldeko jokoak eta beste erakustaldi batzuk.

Arratsaldean lau bertsolarik kantatuko dute herriko frontoian: Peñagarikano, Eizagirre, Silveira eta Lujanbiok, hain zuzen.

Jubilatu egunean bazkaria eta afaria
 Jubilatu eguna larunbatean izango da eta ekitaldi asko daude prestatuta goizean goizetik. Aranoko jubilatuek eguerdian dute urteroko bazkaria eta

bertan izango dituzte urtero bezala, Lazkano eta Agirre bertsolariak ere. Larunbat gauean ohiturazko Oilasko jatea dute, eta ondorenean gaupasa Etxabe anaiekin.

Artzai txakur erakustaldia igandean
 Igandea Umeen eguna izaten da eta goiz eta gauean daude beraientzako ekintzak prestatuta: Gorritiren Show-a, Txokolatada eta Potxin eta Patxin pailazoak. Arratsaldean, berriz, Artzai txakur erakustaldia izango da *Intxaintako* belar-soroan (herri sarreran bidez azpikaldetik dagoen belazean). Joan den urtean errekuperatu zuten ekitaldi hori, urteetan egin gabe egon zena, eta izugarritzko arrakasta izan zuen. Aurten lau artzai izango dira beren txakurrekin: Aizpurua, Arrillaga, Etxeberria eta Garaiar.

Pelota txapelketa eta partiduak
 Urteroko Goizueta eta Aranoren arteko pelota partiduak ostiralean eta igandean izango dira eta Aranoko pelota txapelketako finalak larunbatean. □

SANTIO JAIEN EGITARUA

UZTAILAK 24, OSTEGUNA

20:00 Udaletxeko balkoitik, Alkateak festei hasiera emango dien suziria botako du.

Ondoren poteo herrikoia

21:00 Herri meza.

22:30 Mus azkarra 'San Roke' elkartean.

UZTAILAK 25, OSTIRALA

10:00 Goiz soinua trikitilariekin.

11:00 Meza Nagusia

12:30 Ohizko pelota partidua Aranoko eta Goizueta afizionatuen artean.

18:00 HERRI KIROLAK

-HARRIJASOTZAILEAK: Saralegi.

-AIZKOLARIAK: -Arrospide eta Mindegia.

-10 eta 12 urteko Eneko eta Rubenen erakustaldia

-IPARRALDEKO JOKOAK

19:30 **BERTSOLARIAK:** Anjel M. Peñagarikano, Estixu Eizagirre, Xabier Silveira eta Maialen Lujanbio.

Gaijartzailea: Xabier Legarreta.

22:30 Herriko plazan Epelde eta Larrañaga.

OHARRAK: Oilasko janerako txartelak 'Gure Ametsa' jatetxean jarriko dira salgai

Jubilatuentzat: San Joakin eta Santa Ana egunean bazkaltzeko 'Gure Ametsa' jatetxean jarriko da lista apuntatzeko.

'Herriko Etxea' ostatua zabalik egongo da.

UZTAILAK 26, LARUNBATA

10:00 Goiz soinua trikitilariekin.

11:00 Herri meza.

-Ondoren hamaiketako jubilatuentzat 'San Roke' elkartean.

12:30 Afizionatuen pelota partidua.

14:00 Jubilatuen bazkaria Gure Ametsa ostatuan.

Ondoren bertsolariak: Imanol Lazkano eta Joxe Agirre.

Arratsaldean zehar trikititxa.

17:00 Pelota txapelketako finalak.

22:00 Ohiko oilasko jatea.

Gaupasa Etxabe Anaiekin

Goizaldean alkoholemia proba eta baratxuri zopa aukeran!

UZTAILAK 27, IGANDEA

10:00 Meza Nagusia.

Ondoren goiz soinua.

12:30 Arano eta Goizueta kadeteen pelota partidua.

18:00 Gorritiren Show-a.

Ondoren txokolatada.

19:30 Artzai-txakurren erakustaldia.


-Mikel Aizpurua (BETI)

-Joxe Antonio Arrillaga (MENDI)

-Iñaxio Etxeberria (ARGI)

-Mikel Garaiar 'Misiyua' (UNDA)

22:00 Potxin eta Patxin pailazoak.



ARANOKO UDALA

*Santio jai zoriontsuak opa dizkizuegu
 Aranoar eta bixitari guztiei. Ondo pasa.*



Maria Almandoz eta Maider Ansa 'Perutxo' baserrian.

MARIA ALMANDOZEK 84 URTETAKO FESTAK EZAGUTU DITU
ETA MAIDER ANSA AURTENGO FESTA ANTOLATZEN ARI DA

“Gure garaiko festetan dantza izaten zen egun guztian eta ilun-etzila jotzean etxera”

LARUNBATA da Santa Ana eguna eta urtero bezala jubilatuen eguna izango da Aranoko Santio festetan. Jubilatuen eguna izaki, urteroko bazkarian saria ematen zaie Aranoko aitona-amonak zaharrenei. Aurten saria 84 urteko Maria Almandoz 'Perutxo'koak eta Agustin Ansa 'Maiseneko Borda'koak jasoko dute. Berez Maria Lasa 'Askatso' baserrikoa da Aranoko zaharrena, baina, bazkarira ez da joango eta Maria Almandoz emango diote saria.

Maria Almandozek 84 urte ditu eta ondo gogoratzen da oraindik, garai bateko festak nola izaten ziren. Maider Ansa 'Beltsoko Borda'koa askoz gazteagoa da eta azken urteetan festak antolatzen aritu da. Bi aranoarekin hitz egin du Hernaniko Kronikak orduko eta oraingo jaiei buruz gehiago jakiteko.

■ **HERNANIKO KRONIKA: Zer festa modu izaten zen zuen garaian?**
MARTA ALMANDOZ: Gure garaian dantzan aritzen ginen egun guztian. Bi akordeonista ekartzen zituzten orduko bi tabernek. Orain baino jende gehiago ere izaten zen eta denak dantzan aritzen ginen. Hori bai, sueltoan aritzen ginen. Baltsean aritu ezker, delikatua izaten zen orduan. Egunez dantza eta gero inulabarrean, ilun-etzila jotzean etxera. Horixe izaten zen orduko festa. Ez orain bezala, egunez lo eta gauetz juerga. Kanbiatua dago.

■ **Eta besterik izaten al zen?**
Bai. Pelota partidua egiten zuten; aizkora apustua ere bai; eta bertsolariak ere izaten ziren. Uztapide eta Zepai etortzen ziren askotan. Horixe izaten zen festa, baina, baziren ohitura batzuk orain galdu direnak ere. Santio hirugarrenean beheko herrira jeisten ginen eta han egiten genuen festa.

■ **Zer da gehien gustatzen zaizuna oraingo festetan, eta zer botatzen duzu faltan?**
Jubilatu egunean ateratzen naiz festara. Herri kirolak, bazkaria, pelota eta festa horrekin gozatzen dut. Gainerantzeko jaia ederki ikusten dut balkoitik. Faltan botatzen dudana, berriz, esan dizut. Gazteak dantzan ikustea, hori da faltan botatzen dudana.

■ **HERNANIKO KRONIKA: Zein da orain Aranoko festen egoera?**
MAIDER ANSA: Giro ederra izaten da normalean, nahiz eta ez den lehen bezainbeste jende etortzen. Jendeak Aranogatik esango du "han ziok", baina oraindik, Goizueta eta Hernanitik ohitura dago Aranora etortzeko eta hori ona da guretzako, dudarik gabe.

■ **Nola erabakitzen duzue programan zer egin eta zer ez?**
Ohitura dena mantendu egiten dugu eta gauza berriren bat sartzen ere urtero saiatzen gara. Mus txapelketa eta Arano eta Goizuetako pelota partidua adibidez urte askotan egin izan dira eta horri eutsi egiten diogu. Artzai txakurren erakustaldia joan den urtean erreperatu genuen, adibidez, eta oso ondo ateratu zen. Aurten, alkoholemia kontrola jarri dugu goizaldean. Ez dakigu zer aterako den, baina, froga batzuk jarriko ditugu.

■ **Festetan zer duzu gustokoena eta zer botatzen duzu faltan?**
Goizueta eta Aranoko pelota partiduekin gozatzen dut nik gehiena. Hor pike handia izaten dugu. Eta Goizuetako festetan ere denak han joaten gara.
Faltan berriz, jende gehixeago. Jende gehiago eta taberna gehiago baleude guk ere zeoze gehiago egingo genuke. □



Mikel Aizpurua oiartzuarra, Border Collie arrazako 'Beti' txakurra ondoan duela.

“Artzai txakur onak karakterra eta obediencia behar ditu”

■ Artzai txakurren erakustaldia igandean izango da arratsaldeko 19:30etan, 'Intxainta'-ko belarsoruan (herri sarreran).

URTE asko dira Aranon artzai txakurren erakustaldia egiteari utzi ziotela, eta iaz erreperatu zuten lehenago hainbesteko sona izan zuen ekintza. Jendetza handia bildu zuen iaz ikuskizunak eta aurten ere leku berezia erreserbatu diote antolatzaileek festetako programan. Lau artzai eta bere txakurrak ariko dira lanean, 'Intxainta'-ko belarsoruan (herri sarreran azpikaldia geratzen den belazean). Horien artean da Mikel Aizpurua oiartzuarra, eta bera da, hain justu, iaz eta aurten ikuskizuna antolatzen ibili denetako bat.

Hernaniko Kronikak hitz batzuk kendu nahi izan dizkio Oartzunen jaio, Oartzunen bizi eta bere ordu libre gehienak artzantzari eman dizkion gazteari.

■ **HERNANIKO KRONIKA: Nola hasi zinen artzai txakurren erakustaldia egiten?**

MIKEL AIZPURUA: Txapelketa eta erakustaldietan 1997an hasi nintzen, baina, afizioa betikoa izan dut. Oartzungo Iturriotz auzoan jaioa naiz, Oartzabal Handi baserrian, eta beti ezagutu ditut ardiak etxean. Gainera, Oñatira-eta joan izan naiz umetan txapelketak ikustera eta horrek ere lagundu dit nere berezko afizioa haunditzen. Ni neroni ez naiz hontatik bizi. Nere ordu libreak dedikatzen dizkiot, hobbie bezala-edo. Berrogeita hamar ardi inguru dauzkagu eta haiei kontu egitearekin nahikoa.

■ **Exhibizio asko egiten al dituzue?**
Urtean 7 bat egiten ditugu Euskal Herrian eta Euskal Herrikan kanpora, Katalunian eta abar.

■ **Puntuatzeko garaian zer da juezak kontuan hartzen duena?**
Txakur guztiek lan berdina egin behar dute, eta akats gutxienarekin proba azkarrena egiten duenak irabazten du. Probak bi dira eta bakoitzean txakurrak lan asko egin behar ditu. Lan horiek denbora baten barruan eta ondo egiten baditu, puntu batzuk dauzka. Akatsen bat egin ezker puntuak kentzen dira. Akatsak izan daitezke: batetik, denbora barruan lana ez betetzea, edo artzaiak agindu gabe ardiei koska egitea; eta bestetik, proba

batzuetan eskatzen diren lanak ez betetzea: banderilen artean ez pasatzea adibidez, edo txakurrak geldialdia egin behar duenean ez egitea.

■ **Nola preparatzen da txakurra proba horiek egiteko?**

Txakurrak 8-10 hilabeteko preparazioa behar du. Txakurrak 6-7 agindu ikasten ditu eta preparatua egon behar du agindu horiek denbora gutxian betetzeko. Normalean 6 minutu inguruko probak izaten dira eta oso intentsoa izaten da bai txakurra eta bai artzaiarentzat.

■ **Alde handia al dago txakur arrazatik arrazara?**

Gustoen kontua da baina nere ustez aldea dago bai arrazatik arrazara eta baita txakurretik txakurrera ere. Txakurrak karakterra eta obediencia behar ditu. Obediencia behar du artzaiak agindutakoa betetzeko eta karakterra ardiak txakurrak nahi duena egiteko. Nere ustez, Irlandako Border Collie-ak berezkoak ditu bai bata eta bai bestea, baina ez dago ukatzerik euskal artzai txakurrak ere badirela oso onak.

■ **Aranorako gogoz al zaudete?**
Aranon oso harrera ona izan genuen iaz eta aurten ere hala espero dugu. Gu prest gaude era horretako exhibizioak leku gehiagotan egiteko ere. Jendeak deitzen badigu gu azalduko gara. Guk etortzea eskatzen diogu jendeari. □